

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 859/2019 Erabakia, abenduaren 27koa. Onestea Basogintzako Laguntza Planaren 2020ko laguntzen deialdia**

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 7ko 45/2016 Foru Dekretuaren bidez, Basogintzarako Laguntza Planaren oinarri arautzaileak onetsi ziren; planaren barruan jasotzen dira 2015-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programak “nekazaritza eta basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak” M04.3 azpineurrian eta “inbertsioak basoguneak garatzeko eta basoen bideragarritasuna hobetzeko” M08 neurrian ezarritako laguntza lerroak, betiere 1305/2013 Arautegiak onetsi beharreko dekretu markoak ezarritako mugen barruan, hala nola programa horretan sartzen ez den eta “basoen kontserbazioa” deritzon neurria.

Ondoren, urtean urteko deialdiak onetsi eta, aldi berean, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 7ko 11/2017 Foru Dekretuak eta martxoaren 19ko 13/2018 Foru Dekretuak oinarri arautzaileak aldatu zituzten, laguntzak errazago aplikatzeko eta oinarri berriak aplikatzekoa zen araudi berrira egokitzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 19ko 8/2019 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion ekainaren 7ko 45/2016 Foru Dekretuan atzemandako hutsaren zuzenketari, eta 2019ko laguntzen deialdia onetsi zen.

2019ko deialdi horretan, badira laguntza eskaera batzuk 8.1 “Basotzea eta baso azalerak sortzea” azpineurriko, titulartasun publikoko zein pribatuko mendietarako, bai eta 4.3 “Basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak” azpineurriko ere, titulartasun publikoko mendietarako. Eskaera horiek betetzen zituzten dirulaguntzak jasotzeko betekizunak baina ez zuten jaso laguntzarik aurrekontu kreditu nahikorik ez zegoelako, eta haietako askotan dagoeneko hasi dute dirulaguntza eskaeraren xede zen inbertsioa, baita egin ere. Hori kontuan hartuta, egokitzen jotzen da deialdi honetan eskaerak arinago izapidetzeko sistema bat ezartzea, honako honetan datzana: oraindik ere dirulaguntza jaso nahi izanez gero, 2019ko deialdian aurkeztutako eskaera berresteko inprimakia bete behar dute eta ontzat jo gainerako agiri osagarriak. Hala ere, eskatzaileek laguntza eskaera berriak aurkez ditzakete.

Bestalde, kontuan izanik laguntza deialdi horretarako kreditu nahikoa duten partidak daudela Arabako Foru Aldundiaren 2020ko gastuen aurrekontu proiektuan, zeina 2019ko azaroaren 14ko bilkuran onetsi baitzuen Foru Gobernu Kontseiluak, haren aurretiko izapidetzea egin behar da.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Basogintzarako 2020ko laguntzen deialdia onestea, aurretiko izapidetzearen bidez eta jarraian zehaztutakoaren arabera:

Laguntza lerroak edo neurriak:

- M08.1. Basotzea eta baso azalerak sortzea.

- M08.3. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea.
- M08.4. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea.
- M08.5. Baso ekosistemen egokitze gaitasuna eta ingurumen balioa gehitzeko inbertsioak.
- M08.6. Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea edo baso potentziala hobetzen inbertitzea.
- M04.3. Basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak.
- Basoen kontserbazioa.

Laguntza horien ehuneko 53 LGNEFek finantzatzen du, bi salbuespenekin: M8.1 "Basotzea eta baso azalera sortzea" lerroaren ehuneko 75 finantzatzen du Europak, eta "Basoen kontserbazioa" izeneko lerroa aldundiaren aurrekontuekin finantzatzen da oso-osorik.

Eskaerak aurkezteko epea:

45 egun natural ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epearen barruko azken eguna balioduna ez bada, epea hurrengo egun baliodunean bukatuko da.

Kreditu erreserbak:

Arabako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontu antolamenduaren barruan jarraian aipatzen diren partiden kontura:

– 40.1.06.45.01.762.90.08 "Mendi publikoetako laguntzak. Deialdi berria": Kreditua, guztira, 915.000,00 euro (545.000,00 euro 2020an eta 370.000,00 euro 2021ean) titulartasun publikoko mendietan aplikatutako honako neurri hauen laguntzak ezartzeko, neurri bakoitzaren zehaztasun eta guzti:

– "Mendi publikoetarako laguntzak":

- 90.000 euro (2020an), M08.4. "Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea" izeneko neurriaren laguntzak ezartzeko.

- 110.000 euro (85.000 euro 2020an eta 25.000 euro 2021ean) M08.3. "Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea" izeneko neurriaren laguntzak ezartzeko.

- 110.000 euro (15.000 euro 2020an eta 95.000 euro 2021ean), M08.1. "Basotzea eta baso azalera sortzea" izeneko neurriaren laguntzak ezartzeko.

- 550.000 euro (300.000 euro 2020an eta 250.000 2021ean) M04.3 "Basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak" izeneko neurriaren laguntzak ezartzeko.

- 5.000 euro (2020an) M08.6 "Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea edo baso potentziala hobetzen inbertitzea" izeneko neurriaren laguntzak ezartzeko · 50.000 euro (2020an), "Basoen kontserbazioa" izeneko neurri nazionalaren laguntzak ezartzeko.

– 40.1.06.45.01.762.90.07 "Mugaketak eta mugarritzeak. Deialdi berria":

- 150.000 euro (50.000 euro 2020an eta 100.000 euro 2021ean), M08.5. "Baso ekosistemen egokitze gaitasuna eta ingurumen balioa gehitzeko inbertsioak" neurriko laguntzak ezartzeko.

– 40.1.06.45.01.780.00.08 "Mendi pribatuetarako dirulaguntzak. Deialdi berria"; kreditua, guztira, 475.000,00 euro (285.000,00 euro 2020an eta 190.000,00 euro 2021ean) titulartasun

partikularreko mendietan aplikatutako honako neurri hauen laguntzak ezartzeko, neurri bakoitzaren zehaztasun eta guzti:

- 90.000 euro (2020an), M08.4. "Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea" izeneko neurriaren laguntzak ezartzeko.

- 180.000 euro (170.000 euro 2020an eta 10.000 euro 2021ean) M08.3. "Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea" izeneko neurriaren laguntzak ezartzeko.

- 200.000 euro (20.000 euro 2020an eta 180.000 euro 2021ean), M08.1. "Basotzea eta baso azalerak sortzea" izeneko neurriaren laguntzak ezartzeko.

- 5.000 euro 2020an M08.6 "Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea edo baso potentziala hobetzen inbertitzea" izeneko neurriaren laguntzak ezartzeko. Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira. Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidan edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horiek, gehienez ere, deialdi osorako hasierako zenbateko erreserbatua adina izango dira.

Azpineurriren batean kreditu soberakina egonez gero, beste neurrietara bideratu ahalko da premia izanez gero, kontuan izanda zein lehentasun ordena ezarri den oinarri arautzaileen 9. artikuluan.

Bigarrena. Dirulaguntzak eman ahal izateko, ezinbestekoa izango da deialdiaren ebazpena ematen den unean kreditu egokia eta nahikoa egotea.

Hirugarrena. 2019ko deialdian aurrekontu kreditu nahikorik ez zegoelako onuradun gertatu ez ziren laguntza eskaeren egileek, deialdi honetan laguntza eskuratu nahi badute inbertsio berberetarako eta aurrekontu berberarekin, aurreko deialdian aurkeztutako eskaeran adierazitako guztia berresten duen idazkia aurkeztu beharko dute. Nolanahi ere, 4.3 "Basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegiturarako inbertsioak" izeneko neurrian eskatutako inbertsioen lehentasun hurrenkera aldatu ahal izango dute eta, betiere, eranskinean jasotako ereduaren arabera bete behar dute berrespen idazkia.

Eskaera horiek eta 2020ko deialdian aurkeztutakoak batera ebatziko dira, eta denei batera ezarriko zaizkie neurri bakoitzean jasotako lehentasun irizpideak eta, hala badagokio, aipatutako oinarri arautzaileen 9. artikuluan ezarritako lehentasun taldeak ere bai.

Laugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea erabaki hau aplikatzeko eta garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko, eta, zehazki, oinarri arautzaile hauen kontra nahiz deialdiak ebazten dituen ebazpenaren kontra aurkeztu diren errekursoak ebazteko.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Gasteiz, 2019ko abenduaren 27a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritza Saileko diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

www.araba.eus



Landa Garapeneko Europako  
Nekazaritza Funtza  
Europak landa eremuetan  
inbertitzen du  
Fondo Europeo Agrícola de  
Desarrollo Rural  
Europa invierte en las zonas  
rurales  
LGENF / FEADER

### BERRESTEKO ESKAERA RATIFICACIÓN DE SOLICITUD DE AYUDA FORESTAL PARA CONVOCATORIA 2020

Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos Sozietatearen izena- Razón Social		NAN/IFZ ■ DNI/NIF
P. K. ■ C. P.		Udala ■ Ayuntamiento
Egoitza ■ Domicilio		IFZ (Sozietatea bada) ■ CIF (si es persona jurídica)
Aipatutako erakundearen titularrak/ordetzaria naizen aldetik,		Como titular/representante de la citada Entidad

#### ADIERAZTEN DUT:

-Otsailaren 19ko 8/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Arabako Basogintzarako Laguntza Planaren 2019ko deialdian, ..... expediente zenbakiko laguntza eskaera aurkeztu nuen ..... basogintza neurriaren barruan, inprimaki honen behealdeko taulan adierazten diren inbertsioetarako  
-Eskaera hori ezetsi egin zen ez zegoelako aurrekontu krediturik.  
-Oraindik ere interesaturik nago lehen adierazitako inbertsioekin jarraitzeko.

#### ESKATZEN DUT:

Aurkeztutaz jo dadila laguntza eskaera 2020ko laguntza deialdian, beheko taulan ageri diren neurri eta inbertsioetarako. Inbertsio horiek bat datoz 2019an aurkeztutakoekin, salbu eta lehentasun hurrenkera. Honako hau da orain hurrenkera:

#### ONDORIO HORIETARAKO:

-Nire erantzukizunpean adierazten dut oraindik ere bete egiten ditudala Arabako Basogintzarako Laguntza Planean xedaturiko baldintzak eta betekizunak, zeinen berri baditadala adierazten baitut.  
-Aurkeztutako laguntza eskaera oso-osorik berresten dut; baita 2019. urteko deialdian aurkeztutako laguntza eskaeran izenpetu nituen konpromiso, erantzukizunpeko aitortpen, baimen eta gainerako agiririk ere.

#### EXPONGO:

-En la convocatoria para el año 2019 del Plan de ayudas Forestales aprobada por Decreto Foral 8/2019 de 19 de febrero, dentro de la medida forestal.....presenté solicitud de ayuda según expediente número.....cuyas inversiones se detallan en el cuadro que figura en la parte inferior de este impreso  
-Dicha solicitud de ayuda fue desestimada por falta de crédito presupuestario.  
-Que sigo interesado/a en continuar con las inversiones anteriormente indicadas.

#### SOLICITO:

Se tenga por presentada solicitud de ayuda a la convocatoria de estas ayudas para el año 2020 ,dentro de la medida y para las inversiones que coinciden con las presentadas en el año 2019 salvo en el orden de prioridad que será el que se indica

#### A TALES EFECTOS:

-Declaro bajo mi responsabilidad que continúo cumpliendo con las condiciones y requisitos exigidos en el Plan de Ayudas Forestales que manifiesto conocer.  
-Me ratifico en todos sus términos la solicitud de ayuda presentado así como en los compromisos, declaraciones responsables, autorizaciones y demás documentación suscritos por mí en la solicitud de ayuda presentada en la convocatoria del año 2019.

#### MEDIDA FORESTAL:

Inbertsioaren deskribapena (2019an adierazitako bera) Descripción de la inversión (misma que figuraba en 2019)	Aurrekontua (2019ko bera) Presupuesto (misma que en 2019)	Prioridad Lehentasuna

#### BASOGINTZA NEURRIA

#### Eskatzailearen sinadura ■ Firma del solicitante

Datuen babesaren alorrean indarrean dagoen araudian ezarritakoa betetzeko, jakinarazten dizugu zure datuak Nekazaritza Sailaren ardurapean dagoen fitxategi batean sartuko direla. Fitxategi horrek segurtasun neurri guztiak dauzka eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren erregistroan inskribatuta dago. Bildutako datuak beharrezkoak dira laguntzak izapidetzeko. Halaber, jakinarazten zaizu zure datuak izanera publiko edo pribatuko beste erakunde batzuei jakinaraziko zaizkizela, indarreko legegian xedatutako kasuetan. Datueiari sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezereztzeko eta datuen aurka egiteko eskubidea egikaritu ahal izango duzu, zure nortasuna egiazatu eta gero, Arabako Foru Aldundiaren herritarrek atentzitzeko bulegora joanda (Prohibitzaia plaza, 5).

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en la normativa vigente en materia de Protección de Datos, le informamos que sus datos van a ser incluidos en un fichero, cuyo responsable es el Departamento de Agricultura y que cuenta con todas las medidas de seguridad y que ha sido inscrito en el registro de la Agencia Vasca de Protección de Datos. Los datos recabados son necesarios para tramitar ayudas. Igualmente, se le informa que sus datos serán comunicados a otras entidades de carácter público o privado en los casos previstos de acuerdo con la legislación vigente. Ud. podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose a las oficinas de atención al público de Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia 5, previa acreditación de su identidad.